

# Irakurmena eta ulermena lantzekoa

## ***Ainara oporretan***

*Ainara kanpoan dago egun batzuk pasatzen eta postala idatzi du euskaltegiko lagunentzat. Irakurri, eta esan beheko esaldiak egia ala gezurra diren.*

Kaixo, lagunok!

Zer moduz? Ni oso ondo nabil.

Egunero gauza bera egiten dugu, baina deskantsatzera etorri gara, eta leku hau oso ona da horretarako.

Goizean goiz jaikitzen gara, eta gosalduta baino lehen, korrika pixka bat egiten dugu. Gero, dutxatu eta gosaltzera joaten gara. Ez dugu asko gosaltzen, fruta pixka bat. Kafea, eta tostada batzuk.

Gosalduta ondoren, hondartzara joaten gara, bainatzera. Nik ez dut denbora asko ematen eguzkitan berehala erretzen naizelako, baina nire mutilak ordu asko ematen ditu eguzkitan.

Egunero ez, baina batzuetan, hondartzan bertan bazkaltzen dugu. Beste batzuetan, hotelera itzultzen gara, edo jatetxe batera joaten gara.

Arratsaldean ingurua ikusteko aprobetxatzen dugu, mendi-buelta txiki bat ematen dugu, edo inguruko herriak bisitatzera joaten gara.

Gauean, hotelean afaltzen dugu, eta, afalduta ondoren, paseotxo bat ematen dugu. Gero, hotelera itzuli, eta ohera.

Beno, lagunok, lekua bukatu zait; beraz, bueltatzen naizenean gehiago kontatuko dizuet.

Ondo ibili, eta asko ikasi!

## Esan beheko esaldiak egia ala gezurra diren

	<b>E</b>	<b>G</b>
a) Ainara deskantsatzera joan da oporretara.		
b) Gosaldu ondoren, korrika egitera joaten dira.		
c) Ainararen mutila segituan erretzen da.		
d) Gauean, hotelean afaldu, eta buelta bat ematera joaten dira.		
e) Ainara aspertuta dago, egunero gauza bera egiten dutelako.		
f) Noizean behin hondartzan bazkaltzen dute.		
g) Goiz jaikitzen dira, eta korrika egitera joaten dira.		
h) Ainarak ez du denbora asko pasatzen eguzkitan.		
i) Inguruko herriak bisitatzen dituzte		